Espedientea: 80/2026

TELEFONO BIDEZKO ITZULPEN ETA INTERPRETAZIO ZERBITZUA KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN PLEGUA

I. ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honetan oinarrituta egiten den kontratuaren xedea izango da EUDELi telefono bidezko itzulpen- eta interpretazio-zerbitzua ematea, zerbitzu publikoetarako sarbidean berdintasuna ahalbidetzeko eta migratzaileek toki-administrazioarekin duten harremana errazteko.

Immigrazioari arreta emateko politikak abian jartzerakoan, funtsezko alderdia da hurbilen dagoen administrazioarekin, Toki Administrazioarekin, hizkuntzan bertan komunikatzeko aukera izatea, eta gai hori zaildu egiten da migratzaileen kasuan.

Hona hemen kontratuaren kodifikazioa:
CPV: Itzulpen-zerbitzuak.
CPV: Interpretazio-zerbitzuak.

Xedea	CPV kodea
Itzulpen Zerbitzuak	79530000-8
Interprete Zerbitzuak	79540000-1

Zerbitzua ez da lotetan banatzen, zerbitzu-prestazio bakarra delako. Eta, beraz, ezinezkoa da lotetan banatzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 99.3 artikuluaren arabera.

2. KONTRATATZEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Aurretiazko Ebazpen-txostenean jasota dago zergatik egin duen Elkarte honek plegu

honetan aipatzen den kontratua.

3. GAUZATZEKO EPEA

Karatulan zehaztutakoa.

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN AURREIKUSITAKO BALIOA

Karatulan zehaztutakoa.

5. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, aurtengo aurrekontuaren kargura finantzatzea aurreikusi da. Era berean, aurrekontu-gaietan eskumena duen organoak dagozkion kredituak gordeko ditu eragindako etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan.

6. ORDAINKETEN ARAUBIDEA

Laguntza teknikoaren ordainketa, dagokion faktura aurkeztu ondoren, kontratuaren ardura duen EUDELeko teknikariek jaso eta ontzat eman ondoren ordainduko da.

SPKLren 32. xedapen gehigarriaren arabera, eta dagozkion fakturetan jasota gera dadin, adierazten da Zuzendaritza dela kontabilitate arloan eskumenak dituen organoa.

7. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honetan ez dira prezioak berrikusiko, SPKLren 103.1 artikuluaren arabera.

8. BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak ez du behin-behineko edo behin betiko bermerik jarri beharrik izango.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

9. ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratu hau prozedura ireki sinplifikatuaren bidez esleituko da, SPKLn aurreikusitakoaren arabera. Prozedura izapidetzean, aipatutako legean eta lege hori garatzeko arauetan jasotako jarduketak jarraituko dira.

10. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio hau bitarteko elektronikoen bidez izapidetuko da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen xedapenekin bat etorriz. Ondorioz, EUDELek lizitatzaileekin duen harremana ere bitarteko horien bidez gauzatuko da.

11. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Espediente honi buruzko jakinarazpen eta komunikazio guztiak elektronikoki egingo dira, eta, horretarako, prozesu honi jarraituko zaio:

1ª) **Hartzailearen esku jartzea.**
2ª) **Jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukira sartzea.**

Epeak modu honetara hasiko dira zenbatzen: jakinarazpen-abisutik (jakinarazpenaren xede den egintza egun berean kontratatzailearen profilean argitaratzen bada) edo jakinarazpena jasotzen denetik (egintza egun berean kontratatzailearen profilean argitaratzen ez bada).

Jakinarazpena eskura jartzen denetik hamar egun natural igaro ondoren, hartzaileak ez badu onartzen edo atzera botatzen badu, iraungitzat joko da, eta jakinarazpenaren izapidea formalki betetzat joko da.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek baldin eta beharrezko kaudimen

ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo profesionala badute; SPKLren 71. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetako batean ere sartuta ez badaude; eta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatuta badaude, prozedura ireki sinplifikatu arrunterako SPKLren 159.4.a) artikuluan eskatzen den bezala. Kaudimena 17. klausulan ezarritako bitartekoen arabera egiaztatu eta ebaluatuko da.

Era berean, beren kabuz edo baimendutako pertsona batek ordezkatuta egin ahal izango dute. Horretarako behar besteko ahalordea emanda. Pertsona juridiko baten ordezkari gisa kideren bat bertaratzen bada, agiri bidez justifikatu beharko du horretarako ahalmena duela. Bi kasuetan aipatu diren kontratatzeko ezgaitasunik kanpo egon behar dute.

Pertsona horiek, halaber, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa egiteko eska daitekeen enpresa edo lanbide arloko gaikuntza izan beharko dute.

13. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Karatulan zehaztutakoa.

14. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio-organoak ez du komenigarritzat jotzen kontratazio-mahai bat eratzea (IKEren 24-1 art.).

15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA PLEGUETARAKO SARBIDEA

Lizitazio hau Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman EUDELen kontratatzailearen profilean iragarriko da.

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira plataforma horren bidez, 15 egun naturaleko epean, iragarkia agertu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, adierazitako epearen azken eguneko 14:00ak arte.

Lizitatzaileek kontratuaren betearazpenari eta betebeharrei buruz eskatzen duten

informazio gehigarria, proposamenak aurkezteko ezarritako epemuga baino sei egun lehenago emango da, betiere informazio-eskaera horiek, gutxienez, epea amaitu baino 12 egun lehenago egin badira.

Lizitatzaileek eskatzen duten pleguei edo, hala badagokio, dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria (bergaretxe.a@eudel.eus) helbide elektronikoan) aurreko paragrafoan ezarritako modu berean egingo da.

SPKLren 136.2. eta 3. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, pleguei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria ezin izan bada adierazitako epeetan eman, eta eskaintzak tokian bertan bisita egin ondoren edo pleguari erantsitako dokumentazioa *in situ* kontsultatu ondoren bakarrik egin badaitezke, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, eraginpeko hautagaitzek eskaintzak egiteko beharrezkoa den informazio guztiaren berri izan dezaten.

Lizitazio-prozedura honetan ez da onartuko deskribatutako bitarteko elektronikoen bidez aurkezten ez den eskaintzarik. Horretarako, beharrezkoa da Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataformaren edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataformaren erabiltzaile erregistratua izatea.

Eskaintza bateko edozein dokumentu ezin bada behar bezala bistaratu, aukera emango zaio lizitatzaileari, gorabehera hori jakinarazten zaionetik gehienez 24 orduko epean, fitxategi okerreko dokumentua formatu digitalean aurkezteko. Geroago aurkeztutako dokumentuak ezin izango du aldaketarik izan eskaintzan sartutako jatorrizkoaren aldean. Kontratazio-organoak egiaztatzen badu dokumentuak aldaketak izan dituela, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

Proposamenak Administrazio Klausula Berezien Agiri honetan aurreikusitakora egokitu beharko dira, eta horiek aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela klausula edo baldintza horiek, salbuespenik eta erreserbarik gabe, eta baimena ematen diola Kontratazio Organoari Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean dauden datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Era berean,

ezin izango du proposamenik izenpetu aldi baterako enpresa-elkarte batean, banaka egin badu, eta ezin izango da aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan agertu. Arau horiek urratuz gero, lizitatzaileak izenpetutako proposamen guztiak ez dira onartuko.

Informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legerian xedatutakoari eta esleipenaren publizitateari eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz SPKLk dituen xedapenei kalterik egin gabe, hautagaiek konfidentzial gisa izendatu ahal izango dute eskaintzak egitean emandako informazioaren zati bat, bereziki sekretu tekniko edo komertzialei eta alderdi konfidentzialei buruzkoa. EUDELek ezin izango du informazio hori zabaldu lizitatzailearen baimenik gabe.

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Legean eta plegu honetan eskatzen diren nortasun-, gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen direla egiaztatzeko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epearen amaiera-unea izango da.

Lizitatzaileek hiru gutunazal elektroniko aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta, eta horietako bakoitzerako klausula honetan zehazten den edukia dutela.

“A” GUTUNAZAL ELEKTRONIKOA.- “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”

Gutunazal horrek agiri hauek izango ditu:

a) **Helbide elektronikoa.** Posta elektronikoko helbide “aktibo” bat izendatzea, SPKLren 15. xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera. Bertan, kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak egingo dira.

b) **Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena.** Adierazpen horretan, lizitatzaileak adieraziko du Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela, baita plegu honetan eta, bereziki, kontratuaren 12. eta 17.5. klausuletan kontratura sartzeko ezarritako betekizunak ere. Adierazpena, Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) formularioaren araberakoa izango da, eta hori betetzeko,

plegu honen I. eranskinean agertzen diren jarraibideak bete daitezke.

Hala ere, kontratazio-organoak, prozedura behar bezala amaituko dela bermatzeko, lizitatzaileek kontratuaren esleipendun izateko plegu honetan adierazitako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko eskatu ahal izango du, esleipena egin aurreko edozein unetan.

c) **Aldi baterako enpresa-elkarte batean** (ABEE) parte hartzen duten enpresaburuen kasuan, kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. Era berean, kontratuaren esleipendun izanez gero, ABEEa formalki eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, eta bakoitzak ABEE horretan dituen izenak, inguruabarrak eta partaidetza zehaztu beharko dituzte.

d) **Lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bad**a, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat ere aurkeztu beharko du.

Legean eta plegu honetan eskatzen diren nortasun-, gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen direla egiaztatzeko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epearen amaiera-unea izango da.

“B” GUTUNAZAL ELEKTRONIKOA.- “BALIO JUDIZIOEN BIDEZ BALORATZEKO IRIZPIDEAK “

Gutunazal horrek balio-judizio baten mende dauden irizpideei buruzko dokumentuak jasoko ditu, plegu honen 13. klausulan adierazitakoak.

“C” GUTUNAZAL ELEKTRONIKOA.- “BALORAZIO AUTOMATIKOKO IRIZPIDEAK”

Gutunazal horrek agiri hauek izango ditu:

Proposamen ekonomikoa, II. eranskinean jasotako ereduaren araberakoa eta Karatulak zehaztutako gainerako agiriak.

17. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKITZEA ETA TRATATZEA,

ENPRESAK HAUTATZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, jarduketa hauek egingo dira:

1. «A» GUTUNAZALA IREKITZEA

«A» gutunazala elektronikoki irekiko da, eta gutunazalean sartutako dokumentazioa kalifikatuko da.

SPKLren 141.2 artikulua aplikatuz, akats zuzengarririk ikusten bada aurkeztutako dokumentuetan, eragindako lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta hiru egun naturaleko epea emango zaie akats horiek konpon ditzaten.

Gainera, lizitatzaileei jakinarazten zaizkien zuzenketa-eskaerak EUDELen kontratatzailearen profilean eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman ere iragarriko dira.

2. «B» GUTUNAZALA IREKITZEA

«B» gutunazalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-judizio baten mende dauden irizpideak jasotzen dituena, kontratatzailearen profilean argitaratzen den lekuan, egunean eta orduan irekiko da, gutxienez 48 ordu lehenago. Horretarako, dokumentazio horretan akatsak edo omisioak zuzendu behar badira, gehienez sei egun balioduneko epea emango da hori egiteko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. «C» GUTUNAZALA IREKITZEA

«B» gutunazaleko dokumentazioa ireki eta baloratu ondoren, «C» gutunazala irekiko da, kontratatzailearen profilean iragartzen den lekuan, egunean eta orduan. Horretarako, dokumentazio horretan akatsak edo omisioak zuzendu behar badira, gehienez sei egun balioduneko epea emango da hori egiteko, aipatutako 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikulua analogiaz aplikatuz.

Aldi horretan, eskaintza bakoitzean balio-judizio baten mende dauden irizpideei emandako balorazioaren berri emango da.

4. ESKAINTZEN SAILKAPENA

Irizpide guztiak baloratu ondoren, aurkeztutako proposamenak sailkatuko dira, handienetik txikienera, eta, dagozkion jarduketen ondoren, kontratua esleitzeko proposamena Kontratazio Organoari igorriko zaio.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzailearen alde, eta ez ditu eskuratuko, EUDELen aurrean, kontratua formalizatu arte.

SPKLren 149. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, kostu oso baxutzat har daitezkeen proposamen bat edo batzuk identifikatzen direnean, eskaintzen izaera anormalki baxua deklaratzeko, aldez aurretik lizitatzaileari edo, hala badagokio, horiek aurkeztu dituzten lizitatzaileei entzun beharko zaie, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa beharko da. Kasu horretan, Kontratazio Organoak, lizitatzaileak egindako justifikazioa eta eskatutako txostenak ikusita, EUDELen nahierara bete daitekeen eskaintzarik onuragarrienaren aldeko esleipena egitea erabakiko du.

Aitzitik, Kontratazio Organoak uste badu eskaintza ezin dela behar bezala bete, kostu baxuegia duen proposamena bat edo batzuk sartu direlako, sailkapenetik kanpo utziko du(te) eta eskaintzarik onenaren aldeko esleipena erabakiko du, sailkatu diren ordenaren arabera.

Egindako guztia espedientean jasoko da, nahitaez egin beharreko akten bidez.

5. LEHEN SAILKATUARI ERREKERIMENDUA

Aurreko jarduketak egin ondoren, kontratazio-zerbitzuek hamar egun balioduneko epea emango diote lehen sailkatuari, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, jarraian adierazten diren jarduketak egin edo agiriak aurkez ditzan:

a) **NAN.** Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren

fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten ordezkari gisa jardunez gero, notario-ahalordea, askietsi egingo dena.

b) **Lizitatzailea pertsona juridikoa denean,** Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutako eraketa- edo aldaketa-eskritura eta identifikazio fiskaleko zenbakia, inskripzioa aplikatzekoa zaion merkataritza-legeriaren arabera eska daitekeenean. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eratze-eskritura edo -agiria, estatutuak edo sortze-egintza aurkeztu beharko da, jarduera arautzeko arauak jasota, eta, hala badagokio, dagokion Erregistro ofizialean inskribatuta.

   Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburuen kasuan, dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, ezarrita dauden estatuko legediaren arabera, edo erantzukizunpeko adierazpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztuta, aplikatzekoak diren Europako Batasunaren xedapenekin bat etorriz.

   Atzerriko gainerako enpresaburuek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-eremuko kontsuletxeko bulegoaren txostenarekin.

c) **EJZ**-Ekonomia Jardueraren gaineko Zergaren agiria kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria. Horretarako, indarrean dagoen ekitaldiari dagokion alta aurkeztu beharko da, edo, bestela, EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Horrekin batera, zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

d) **ABEE.** Hainbat enpresaburuk lizitaziora aldi baterako enpresa-elkarte bat eratuta jotzen badute, elkarte horietako bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Era berean, proposamenean adieraziko dute ABEEko kide bakoitzak egingo lukeen xede-zatia, guztien kaudimen-betekizunak zehaztu eta egiaztatzeko.

e) **Atzerriko enpresak.** Kasu horietan, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako Espainiako edozein ordenatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzeko adierazpena, eta, hala badagokio, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egitea.

f) **Zergak eta GS.** Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela egiaztatzea edo Kontratazio Organoari zuzenean eskuratzeko baimena ematea.

g) **Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Euskadiko Erregistroa.** Aurreko a), b) eta d) idatz-zatietan adierazitako inguruabarrak egiaztatzeko, Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Euskadiko Erregistroaren ziurtagiria, Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialarena edo Europar Batasuneko ziurtagiri bat aurkeztu ahal izango da, SPKLren 96. eta 97. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Atal honetan aipatutako ziurtagiriak elektronikoki eman ahal izango dira.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak bere eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeran.

Atal honetan aipatutako errekerimenduaren ondoren aurkeztutako dokumentazioak zuzentzeko moduko akatsik badu, hiru egun naturaleko epea emango da zuzentzeko. Hori zuzenean jakinaraziko zaio lizitatzaileari, eta kontratatzailearen profilean ere iragarriko da.

18. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontu-hartzailetzaren gastu-konpromisoa gehienez ere 5 egun naturaleko epean ikuskatu ondoren, 159.4 artikuluan adierazten den bezala, Kontratazio Organoak kontratua esleitzea erabakiko du, lehenengo sailkatuari eskatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun balioduneko epean, SPKLren 150.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Esleipena lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua gauzatzeko, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den dokumentu batean formalizatuko da, eta dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan sartzeko.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazten den epean, gehienez ere 15 egun baliodunekoa, esleipendunak EUDELen agertu beharko du kontratua dokumentu bidez formalizatzeko.

Enpresa esleipendunak, kontratua formalizatu baino lehen, adierazpen bat aurkeztu beharko du, VII. eranskinean jasotako ereduari egokitua. Bertan, zerbitzariak non kokatuko diren eta zerbitzariei lotutako zerbitzuak nondik emango diren adieraziko du, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez.

19. KONTRATUA EZ EGITEKO ERABAKIA ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEA

SPKLren 152. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Kontratazio Organoak, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik, kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du. Era berean, prozeduran atzera egin ahal izango du, kontratua prestatzeko arauak edo esleipen-prozedura arautzen duten arauak zuzendu ezin diren arau-hauste bat hautematen badu. Kontratua ez egiteko erabakia eta prozeduran atzera egiteko erabakia kontratua formalizatu aurretik hartu beharko dira, artikulu horretan ezarritako betekizunekin bat etorriz.

III. KONTRATUA GAUZATZEA

20. KONTRATUA GAUZATZEKO ARAUBIDE OROKORRA

Kontratua kontratistaren arriskura eta menturara gauzatuko da, agiri honetan jasotako klausulen eta, hala badagokio, espedienteari lotutako zehaztapen teknikoen arabera, eta EUDELen zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolaren pean, zeinak ahalmen horiek idatziz zein ahoz gauzatuko dituen.

Kontratistari edo haren mendeko pertsonei egotz dakizkiekeen egintzen edo omisioen ondorioz, kontratuaren martxa egokia arriskuan jartzen bada, EUDELek eskatu ahal izango du kontratua behar bezala gauzatzeko edo berrezartzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko.

SPKLren 202.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, kontratu hau gauzatzeko baldintza berezi hauek eskatuko dira: gizarte, lan, etika, ingurumen edo bestelako izaera dutenak:

Karatulan zehaztutakoak.

Gainera, kontratistak datuen babesari buruzko Estatuko eta Europar Batasuneko araudia bete behar ditu, kontratuan erabiliko diren datu pertsonalei dagokienez.

Zerbitzu-kontratu honen xedea jabetza intelektual edo industrialeko eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskuragarri jartzea da, eta, horrekin batera, Euskadiko Udalen Elkarteari lagako zaio.

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebehartzat joko dira, eta, beraz, SPKLren 201. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, baldintza horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat jo ahal izango da, aipatutako legearen 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

21. KONTRATISTAREN LAN BETEBEHARRAK

Kontratistak lan-arloan, gizarte-segurantzan eta laneko segurtasun eta higienean indarrean dauden lege-xedapenak bete beharko ditu, baita aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo

sektorialaren araberako soldata-baldintzak ere, hori guztia kontratu honen xede diren zerbitzuetan lan egiten duten langileei dagokienez. EUDELek ez du erantzukizunik izango ez-betetze horrengatik.

22. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA GAUZATZEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

SPKLren 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratista izango da kontratua gauzatzeko behar diren eragiketen ondorioz sortzen diren kalte-galeren erantzule. Kontratistak lan-arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta higienean indarrean dauden lege-xedapenak bete beharko ditu, baita aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboaren araberako soldata-baldintzak ere. Hori guztia kontratu honen xede diren zerbitzuetan lan egiten duten langileei dagokienez. EUDELek ez du erantzukizunik izango ez-betetze horrengatik.

23. KONTRATUAREN ALDAKETAK

EUDELek kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLren 205. artikuluan berariaz aurreikusitako kasu eta baldintzetan, eta dagozkien irismen eta mugekin, lege beraren 203., 206. eta 207. artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta, betiere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Arestian aipatutako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat.

24. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honek datu pertsonalak eskuratzea badakar, kontratistak SPKLren 25. Xedapen Gehigarritik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta hura garatzeko araudiarekin lotuta.

25. PRESTAZIOA JASOTZEA ETA BERME EPEA

Kontratu honen izaera dela eta, ez da berme-eperik ezartzea aurreikusten.

26. ZEHAPENAK KONTRATISTARI, ZERBITZUA EZ BETETZEAGATIK

A. Kontratua gauzatzeko epeak ez betetzea

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, kontratua gauzatzeko epea (bai guztizko epea, bai, hala badagokio, epe partzialak) betetzeko orduan berandutu egin bada, EUDELek bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea edo zehapenak ezartzea, kontratuaren prezioaren 1.000 euroko 0,60 euroko proportzioan, BEZik gabe.

Berandutzeagatiko zehapenak kontratuaren prezioaren ehuneko 5eko multiplora iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo zigor berriak ezarriz gauzatzen jarraitzea erabakitzeko.

B. Prestazioen gauzatze partziala ez betetzea

Kontratistak, egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, kontratuan zehaztutako prestazioen gauzatze partziala bete ez badu, EUDELek aukera izango du kontratua suntsiarazteko edo kontratuaren prezio osoaren ehuneko 10eko zehapena ezartzeko.

C. Gaizki gauzatzea

Prestazioa behar bezala betetzen ez bada, EUDELek zehapenak ezarri ahal izango ditu, kontratuaren prezioaren ehuneko 10 gainditu gabe, BEZik gabe, eta zehapen horien guztirakoak ezin izango du hitzartutako prezioaren ehuneko 50 gainditu.

D. Ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak ez betetzea

Kontratistak ingurumen- gizarte- edo lan-arloan dituen betebeharrak betetzen ez baditu batez ere soldatak ordaintzerakoan behin eta berriz atzeratzen baditu edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza txikiagoak aplikatzen badira, eta baldintza horiek larriak eta doluzkoak badira, EUDELek, SPKLren 201. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, zehapenak jarri ahal izango dizkio. Kasu horretan zenbatekoa kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino txikiagoa izango da, BEZik gabe, eta zigor horien guztirakoak ezin izango du hitzartutako prezioaren ehuneko 50 gainditu.

E. Azpikontratistekiko betebeharrak ez betetzea

SPKLren 217. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, kontratistak azpikontratistekin dituen betebeharrak betetzen ez baditu, EUDELek zehapenak ezarri ahal izango ditu, horietako bakoitzak kontratuaren prezioaren ehuneko 10 gainditu gabe, BEZik gabe, eta zigor horien guztirakoak ezin izango du hitzartutako prezioaren ehuneko 50 gainditu.

F. Langileak subrogatzeko betebeharrak ez betetzea

Kontratistak kontratuaren xede den zerbitzuak eragindako langileen subrogazioaren arloan dituen betebeharrak betetzen ez baditu, EUDELek, SPKLren 130.4 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, zehapenak ezarri ahal izango ditu, horietako bakoitzak kontratuaren prezioaren ehuneko 10 gainditzen ez badu, BEZik gabe; eta zigorren guztirakoa ezin izango da hitzartutako prezioaren ehuneko 50 baino handiagoa izan.

27. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Zerbitzu-kontratua suntsiarazteko arrazoiak sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoak dira.

28. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratistak hirugarren bati laga ahal izango dizkio kontratutik eratorritako eskubideak eta betebeharrak, baldin eta:

a) lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak ez badira kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarri izan,
b) lagapenaren ondorioz ez bada benetan merkatuko lehia murrizten,
c) lagapenak ez badakar kontratistaren ezaugarrien funtsezko aldaketarik, ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementua badira, eta
d) lagapena SPKLren 214.2 artikuluan jasotako betekizunen eta eskakizunen arabera egiten bada.

29. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango du prestazioaren zati bat. Nolanahi ere, azpikontratazio horrek Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. eta 216. artikuluetako baldintzak bete beharko ditu.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

30. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu honen arabera egiten den kontratua pribatua izango da, eta agiri honek eta harekin batera aurkezten diren gainerako agiri teknikoek arautuko dute. Lege horretan aurreikusi ez den guztiari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa beteko da, eta, lege horren aurkakoa ez den guztian, honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartua; maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena; eta, hala badagokio, administrazio publikoen kontratazioari aplikatu beharreko gainerako arauak.

Administrazio Klausula Berezien Agiri honen eta espedienteari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik egonez gero, Agiri honetan xedatutakoa nagusituko da.

31. EUDELen AHALMENAK

Honako ahalmenak dagozkio EUDEL erakundeari: kontratua interpretatzea, kontratua betetzeak sortzen dituen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratua gauzatzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna deklaratzea, kontratua bertan behera uztea, kontratua suntsiaraztea eta kontratuaren ondorioak zehaztea, betiere SPKLn eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean ezarritako mugen barruan eta bertan ezarritako baldintzei eta ondorioei lotuta.

32. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honetatik sor daitezkeen arazo eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu, hargatik eragotzi gabe, hala badagokio, eskumena duen jurisdikzioan

aurkeztea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 27.2 artikulua edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean araututako beste edozein, hori guztia EUDELen KBJ-Kontrataziorako Barne Jarraibideekin bat etorriz.

33.- EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIALAREN ETA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK

33.1.- Lanen jabetza.

Edozein fasetan egindako lanak erakunde esleitzailearen jabetzakoak dira, eta, ondorioz, edozein unetan eska dezake prestazioen zati bat ematea, betiere behin betiko prestazio-programarekin bateragarria bada eta lanen garapen egokiari eragiten ez badio.

Era berean, kontratua garatuko duenak prestazioa aldez aurretik ematea eskatu ahal izango du eta, erakunde lizitatzaileak, aurretiazko lanaren emate hori onartzeko ahalmena izango du.

33.2.- Jabetza industriala eta intelektuala.

Jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskura jartzea xede duten zerbitzu-kontratuek ezinbestekoa dute eskubide hori erakunde kontratatzaileari lagatzea.

Ondorioz, EUDELek, ekoizpenaren jatorrizko formatuaz gain, jabetza intelektualaren eskubideak eskuratzen ditu, eta, bereziki, lortutako obra edo produktua erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean komunikatzeko eta eraldatzeko eskubideak, bai eta ekonomikoki ustiatu daitezkeen gainerakoak ere. Jabetza intelektualaren eskubide horiek esklusiboki eskuratzen dira, sinaduraren egunean dagoen edozein ustiapen- edota euskarri-modalitateren gainean, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateginean aurreikusitako gehieneko iraupenaz eta munduko herrialde guztietara hedatzen den lurralde-eremuaz, salbuespenik gabe.

Eskubide horren titulartasunak, lana edo azken produktua ez ezik, honako hauek ere

hartzen ditu: lanak, zirriborroak, eskemak, aurretiazko dokumentuak, fluxu-diagramak, eta, oro har, garapenerako jabetza intelektual eta industriala izan dezaketen lan guztiak.

Kontratistak xehetasunez jakinarazi beharko dio EUDELi kontratatutako lanaren emaitzan sartuko diren aldez aurretik zeuden kontribuzioen gainean hirugarrenek izan ditzaketen erreserba eta legezko eskubide guztiak. Kontratistaren betebeharra da aipatutako eskubide eta erreserben mende dauden elementu guztien erabateko erabilgarritasuna bermatzea, horrek ekar ditzakeen kostuak bere gain hartuz.

Kontratista erabateko erantzulea izango da eta bere kontura izango da eskubide horiei buruzko erreklamazio oro, eta EUDELi kalte-ordaina eman beharko dio erreklamazioak aurkeztean EUDELi sor dakizkiokeen kalte-galerengatik, ordezkaritzako eta defentsako gastuak barne.

Kontratuaren xedea aplikazio informatikoak egitea eta garatzea denean, aurreko paragrafoko hirugarrenen lege-eskubideei eta erreserbei buruzko informazioak nahitaez jaso beharko ditu erabilitako iturri guztien erreferentzia, horien bertsioa eta jatorria, osagai bakoitzari aplikatutako lizentziak, eta horien erabilera konpilazioan edo gauzatzean egiten den.

Kontratistak edo elaborazioan parte hartu duen edozein pertsonak ezin izango du lana beretzat erabili, ezta hirugarren batzuei kontratatutako lanaren filmazioaren, testuen, marrazkien, argazkien edo antzekoen zatiak eman ere; eta ezin izango du haren edukia osorik edo zati batean argitaratu EUDELen berariazko eta idatzizko baimenik gabe. Era berean, ez dira saiatuko kontratutik erator daitezkeen jabetza industrial edo intelektualeko eskubide berberak edo antzekoak erregistratzen, eta betebehar horrek amaitu arte iraungo du. Nolanahi ere, betebehar horiek ez betetzearen ondoriozko kalte-galeren erantzule kontratista izango da.

Kontratistak konpromisoa hartzen du EUDELekin lankidetzan aritzeko eta EUDELek klausula honetan aipatutako eskubide guztiak eskuratu edota babesteko behar dituen agiri guztiak sinatzeko.

Bilbon, 2026ko ekainaren 8an

ERANTSI BEHARREKO ERANSKINAK, hala badagokio.

I. ERANSKINA. KONTRATATZEKO ESKAKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO ADIERAZPEN-EREDUA

Nik, ... jaunak/andreak, helbidea ....., PK:....., NAN zk. ....., telefono zk. ....., e-maila ..... izanik, gaitasun juridiko osoaren eta jarduteko gaitasun osoaren jabe, nire izenean (edo.....(r)en ordezkari gisa, helbidea ....., PK:..... eta telefono zk. ..... dituena, pertsona fisiko edo juridikoa denaren arabera NAN edo IFZ zk. ..... izanda), jakinik ..... (e)k prozedura deitu duela ..... kontratatzeko, nire erantzukizunpean,

ADIERAZI DUT

I. Aipatutako sozietatea, haren administratzaileak, legezko ordezkariak eta sinatzailea ez daudela Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan adierazita dauden kontratatzeko debeku- eta bateraezintasun-kausetan nahastuta.

II. Adierazitako sozietate horrek eguneratuta dauzkala bai indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta bai Gizarte Segurantzarekikoak.

III. Adierazitako sozietate hori Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagokion epigrafean alta emanda dagoela.

IV. Adierazitako sozietate horrek ez daukala zerga-zorrik administrazio kontratatzailearekin ordaintzeko betearazte-aldian, edo zor horiek bermatuta dauzkala.

V. Adierazitako sozietate horrek Administrazio Klausula Berezien Agirian kontratu hau eskuratzeko ezarrita dauden eskakizun guzti-guztiak bete dituela, eta, bereziki, 12. eta 17. klausuletan adierazita daudenak.

.....(e)n,..... (e)ko ..... aren ..... (e)(a)n.

Sinadura

II. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Nik, ... jaunak/andreak, helbidea ....., PK:....., NAN zk. ....., telefono zk. ....., e-maila ..... izanik, gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoaren jabe, nire izenean (edo.....(r)en ordezkari gisa, helbidea ....., PK:..... eta telefono zk. ..... dituena, pertsona fisiko edo juridikoa denaren arabera NAN edo IFZ zk. ..... izanda), jakinik ..... (e)k prozedura deitu duela ..... kontratatzeko, nire erantzukizunpean,

ADIERAZI DUT

1) Hitza eman dudala proposamena gauzatzeko ..... €-ko prezioan, horri ..... € erantsita, BEZaren %.....ari dagozkionak, eta. .....ko epean, eta ulertuta kontu-azalpen guztiak zehaztutako baldintzen barruan daudela, edozein zerga-alorretako zergak, gastuak, tasak eta arielak barne, bai eta kontratistaren etekin industriala ere.

2) Ezagutu ditudala Preskripzio Teknikoen Agiria, Administrazio Klausula Berezien Agiria eta honako kontratu hau arautuko duten gainerako agiriak, eta oso-osorik onartu eta ontzat eman ditudala.

3) Ordezkatzen dudan enpresak bete dituela hori irekitzeko, instalatzeko eta jardunean jartzeko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebehar guztiak.

.....(e)n,..... (e)ko ..... aren ..... (e)(a)n.

Sinadura

III. ERANSKINA. BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA

..... jaunak/andreak, NAN zk. ..... izanda, bere izenean edo (lizitatzailea) .....(r)en ordezkari gisa, zeinak IFZ zk. ..... duen, ... zenbakiko espedienteari dagokionez,

ADIERAZI DU

Kontratua gauzatzeko atxiki beharreko baliabideei dagokienez, honako hau:

I.- Hitza eman du "*Baliabideak atxikitzeko konpromisoa*" koadroan agertzen diren baliabideak kontratua gauzatze aldera atxikitzeko.

II.- Hitza eman du Kontratazio Organoak eska diezaiokeen dokumentazio guztia aurkezteko, Karatula **ATALAREN** barruan, eta "*Baliabideak atxikitzeko konpromisoa*" koadroan identifikatutako baliabideak eskura dauzkala egiaztatzeko, SPKLren 150.2 artikuluan ezarritako epearen barruan. **GIZA BALIABIDEAK**
PROPOSATUTAKO GIZA BALIABIDEAK
BALIABIDE MATERIALAK
PROPOSATUTAKO BALIABIDE MATERIALAK

IV. ERANSKINA. ESKAINTZAN JASOTAKO INFORMAZIO JAKIN BAT KONFIDENTZIAL MODUAN IZENDATZEA

..... jaunak/andreak, NAN zk. ..... izanda, bere izenean edo (lizitatzailea) .....(r)en ordezkari gisa, zeinak IFZ zk. ..... duen, ... zenbakiko espedienteari dagokionez,

ADIERAZI DU

(*) zenbakidun kontratazio-espedienteko [...] gutun-azale(t)an (adierazi zein gutun-azal den) aurkeztutako dokumentazioari dagokionez, konfidentzialtzat jo direla eskaintzako ondorengo informazio eta alderdi hauek, sekretu tekniko edo komertzialekin duten lotura dela-eta:

[...]

Konfidentzialtasun hori honako arrazoi hauen bitartez justifikatu da: [...]

.....(e)n, 20...(e)ko .....ren .....(e)(a)n.

[Enpresaren/lizitatzailearen izena].

_____

[...] jn./and.

(*) Espediente-zenbakia adierazi.

V. ERANSKINA. KOMUNIKAZIOETARAKO ETA JAKINARAZPENETARAKO DATUAK

..... jaunak/andreak, NAN zk. ..... izanda, bere izenean edo (lizitatzailea) .....(r)en ordezkari gisa, zeinak IFZ zk. ..... duen, ... zenbakiko espedienteari dagokionez,

ADIERAZI DU

Jakinarazpenak eta komunikazioak egiteko datuak honako hauek direla:
Datu orokorrak:

Enpresa lizitatzailearen izena:

IFK / IFZ:

Jarduera nagusia:

Helbide soziala: Egoitza nagusia:
EAEko ordezkaritzak:

Langile kop.: Guztira:
EAEn:

Negozio-bolumena: Guztira:
EAEn:

Kontratisten Erregistro Ofizialaren ziurtagiria (bai/ez):

Kudeaketa-sistemen ziurtagiria (ISO, UNE edo baliokideak):

Jakinarazpenetarako datuak:

Jakinarazpenen hartzailea:

Posta elektronikoko helbidea:

Jakinazpenetarako hizkuntza: Euskara = [ ]
Gaztelania = [ ]

VI. ERANSKINA. KONTRATUAREN XEDEA BETETZEN DUTEN PERTSONEKIKO BERDINTASUN ETA ERRESPETU MAILAN ONARTU DITUEN KONPROMISOEI BURUZKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak, NAN zk. ..... izanda, bere izenean edo (lizitatzailea) .....(r)en ordezkari gisa, zeinak IFZ zk. ..... duen, ... zenbakiko espedienteari dagokionez,

ADIERAZI DU

I.- Ordezkatzen duen erakundeak ez duela zehapenik jaso arau-hauste oso larria egiteagatik, eta ez dutela inoiz zigortu administrazio-ebazpen edo epai judizial irmo bidez, Langileen Estatutuan edo aplikatu beharreko hitzarmenean berdintasunari buruz ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.

II.- Ordezkatzen duen erakundeak Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatua betetzen duela.

III.- Kontratuak helburu duen jarduera egiten duten langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa, esleipenduna izanez gero, honako hau dela:
[……]

IV.- Esleipenduna izanez gero, kontratuaren arduradunak edo Kontratazio Organoak langile gizon-emakume horiei egiaz aplikatu zaizkien lan-baldintzei buruz eska dezakeen informazio guztia emango duela kontratua gauzatzen ari den bitartean.

V.- Esleipenduna izanez gero, kontratua gauzatzen ari den bitartean, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan jasota dagoen soldata ordainduko duela, langile bakoitzari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da inola ere hura baino txikiagoa izan.

VI.- Bere borondatez onartzen duela gardentasun instituzionala eskaintzea kontratua esleitzeko prozeduratik eta gauzatzetik eratorritako datu guztiei, harik eta kontratua amaitu arte.

VII.- Kontratua gauzatzeko hitza eman duela, kontratistari dagozkion eta kontratua gauzatzeari atxikitako langileei dagokienez Agirian ezarrita dauden betebeharrak zorrotz betez.

.....(e)n, 20...(e)ko .....ren .....(e)(a)n.

[Enpresaren/lizitatzailearen izena].

_____
[...] jn./and.

VII. ERANSKINA. ZERBITZARIEN KOKAPENARI ETA ZERBITZARIEI LOTUTAKO ZERBITZUEN GAINEKO ADIERAZPEN-EREDUA

.....jaunak/andreak,
.....(e)an bizi denak (PK.....),
.....NAN,.....telefonoa eta..... e-maila dituenak,
gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, bere izenean (edo pertsona honen ordezkari bezala: izen-abizenak:....., helbidea:.....,
PK:....., telefonoa:....., NAN edo IFK (pertsona fisikoa edo juridikoaren arabera): .....) eta
..... (e)k, ... kontratatzeko, deitutako prozeduraren berri izanda,

HONAKO HAU AITORTZEN DU:

1.) Zerbitzariak..... (e)an kokatuko direla.

2.) Zerbitzari horiei lotutako zerbitzuak..... (e)an emango direla.

.....(e)n,..... (e)ko ..... aren ..... (e)(a)n.

Sinadura